

AITA SAN JOSÉ-RI

*Lagun zaiguzu guk ber ainbat
Gauden artean munduan,
Beti ere bai, baiña geien bat
Eriotzako orduan.*

Zuri eskeintzen dizut Maria
Nere lan emen asia,
Arren irichi zadazu orain
Eskatzen dedan grazia;
Bada zaitugu bitartekotzat
Jaun zerukoak utzia,
Zure senarra alabatzeke
Da nai nukean guzia.
Lagun...

Orain Josepe, zugana nator,
Nai baninduzu aditu,
Zeruak bere graziak ondo
Zure gain iñuri ditu:
Birtute eder zureaz beti
Emen gaitezen oroitu,
Nik nai zinduzket beti-betiko
Izarraz gañetik goitu.
Lagun...

Zure biotza da lorategi
Birtute danez egiña,
Kastidateko lirio zuriz
Aingeruakin berdiña;
Bakarrik zugan arkitutzen da
Birtute bear adiña,
Izateko zu, bere laguntzat
Mariak artzeko diña.
Lagun...

Zeruko Aitak bere semea
Lurrean jaio orduko:
Zu jarri zaitu, izan zaitezen
Beraren Aita-ordeko:
Izango zera, Ama ta seme,
Bien aingeru-guardako.
¿Nork esan zuri, zeru goietan
Zer tronu zaitzun gordeko?
Lagun...

Iduki arren seme-ordeko
Zeru ta lurreko Jauna,
Arotz beartsu batek bezela
Egiten zenduen lana
Izerdi zure bekokikoaz
Irabaziaz zer-jana
Orra ejemplo gaurko munduak
Oso bearra duana.
Lagun...

Gure biotza eziñ aserik
Beti da zerbaiten gose,
Bakar-bakarrik nonbait zeruko
Glorian diteke ase.
Gure bizitza laburra bada
Edo ta naiz izan luze,
Ill gaitzela gogoz esanaz,
Jesús, María ta José.
Lagun...

P. M.